

7. GAIA: Estatuko Gobernu eta Administrazioa

Gobernu motak

Botere exekutiboaren ezaugarrien arabera

Monista: Presidentzialismoa: Estatu burua = Gobernu burua (AEB)

Duala: Parlamentarismoa: Estatu burua eta Gobernu burua bereiztuta (Espainia)

Gobernu burua aukeraketa sistemaren arabera Zuzena (Frantzia)

Legebiltzarra (Espainia)

Estatu burua aukeraketa sistemaren arabera

Oinordetza: Monarkia (Danimarka) Aukeraketa zuzena (AEB)

Zeharkako aukeraketa: herritarren ordezkariak hautatzen dute estatu burua

Gobernua: Gobernu kideen hautaketa

Orokorrean, gobernu buruak aukeratzen ditu gobernu kideak. Ejekutibo bikoitzetan estatu buruak izendatzen ditu. Baldintzak Legebiltzarkide izan ala ez dira.

Espainiako gobernua

Presidentea figura zentrala (klabea) da, gobernuaren buruzagi eta ordezkaria baita, hura osatzen baitu eta parlamentuarekin harremana baitu (honek hautatua da). Azken hamarkadetan, konstituzioaren eta legediaren markoan, figura indartsuagoa bilakatu dela; Nolabaiteko presidentzialismorako joera nabari dela (espainiako kasuari buruz ari gara): erregearen boterea sinbolikoa delako, eta bereziki, azken hamar urteetan lidergo pertsonalistaren figura indartu delako politikan, komunikabideen eraginaren ondorioz, proiektio mediatiko handia ematen baitiote. Presidentearen inguruan aholkulari ugari daude, hurbilekoak eta ez hain hurbilekoak (denak kontatuta 300, gertukoak kontatuta 20 inguru). Presidenteak bere inguruan nolabaiteko gobernu moduko bat osatzen du, ministeritzetatik aparte, bere gertuko eta konfidantzakoa. Presidentzia ministeritzak ere garrantzia handia du, baita presidenteordeak eta bozeramaleak ere.

Konstituzioa. 98. art. Presidenteak Gobernuaren ekintza zuzentzen du eta beste gobernu kideen jarduerak koordinatzen ditu.

50/1997ko Gobernu legeak zehazten ditu presidentearen funtzioak:

- Gobernuaren ekintza zuzentzea
- Gobernu kideen koordinazioa • Gobernuaren ordezkariak
- Kongresu eta Senatuaren deusezteak
- Konfiantza-mozioa proposatu

2016ko egitura dekretuaren arabera 13 ministeritzaz osaturik dago Espainiako gobernua.

Gobernuaren antolaketa

Ministroak

Izaera politiko eta administratiboa dauka. Organo kolegiatuak dira, alegia, erabakiak gobernuan hartzen dira eta erabakia partekatua da. Beste gobernu batzuetan ez da ematen halako kolegialtasunik. Astean behin ministro kontseilua biltzen da erabakiak hartzeko.

Sailik gabeko ministroak

Egon daitezke, baina gaur egun ez dira erabiltzen. Batez ere laguntzaile funtzioa betetzen dute, baina hori orain aholkulariek eta abarrek betetzen dute...

Departamentuak

Politika arlo bati garrantzia emateko sortzen dira, ikuspuntu progresista emateko, gizartearen aldaketei erantzuteko, eginkizun berriekin arduratzeko.

Ministro izateko gaitasunak

Gai eztabaidatsua da. Esaten da hezkuntza maila altua, espezializazioa edo profesionaltasuna, politizazioa edota kudeaketarako gaitasuna behar dutela.

Esan ohi da, ministroak batez ere eragingo duela ministeritzaren agenda finkatzerakoan. Bestalde, komunikatzeko gaitasuna gero eta garrantzitsuagoa izango da, erabat loturik baitago abiatu nahi dituen politikak ezartzea lortzearekin. Ministeritzaren kudeaketaz (gerentziaz) ere arduratu beharko du.

Tabla 7. Las tareas de los ministros en los gabinetes europeos

Política pública	Política	Ejecutiva	Relaciones públicas
Establecimiento de la agenda	Promoción de la posición del departamento en el gabinete	Gestión departamental	Supervisión de las relaciones del departamento con:
Iniciación de la política pública	Parlamento	Decisor ejecutivo	Grupos de interés
Selección de la política pública	Unión Europea		Público
Legitimación de la política pública	Partido		Medios de comunicación

Fuente: Marsh, Richards y Smith 2000: 306.

Estatu idazkari eta idazkariorde batzordea

Lehen, bigarren eta hirugarren mailako idazkarien bilera izaten da, erakunde garrantzitsua da, beraz. Asteazkenero egiten da eta ostiraleko ministro kontseilua prestatzea dute helburu.

- Sail ezberdinetatik datozen gaiak jaso. Behar dituzten txosten guztiak dauzkaten aztertuko dute.
- Dena zuzen badago zerrenda beltza deritzon sartuko dira, hau da, Ministroen Kontseiluko zerrendara pasako dira. Ondoren sailkatuko dira zerrenda berde edo gorrian.

Zerrenda berdea: Idazkarien batzordean bertan onartzen direnak, dena argi dagoen kasuetan.

Zerrenda gorria: Deliberazioa behar dutenak. Gai nagusiak. Ministroen Kontseiluan erabakiko diren gaiak.

8. GAIA: Erkidego Autonomoko Gobernua eta Administrazioa

Autonomia Erkidegoen sorrera eta garapena

Euskal Autonomia Erkidegoa, 1978ko Konstituzioarekin sortu zen, egonkortasun politikoa helburu zuelarik. Honela, 148. artikulua lehengo zatian antolaketa autonomiaren printzipioa jasotzen da, erkidegoek antolaketa burutzeko autonomia izango dutela esanez.

Autonomia Erkidegoak sortzeko bi bide desberdin finkatzen ditu Konstituzioak:

- 143. art. Honen arabera arautzen dira erkidego arruntak.
- 151. art. Honetan arautzen dira bide azkarra jarraituko duten erkidegoak. Honakoa lurralde historikoek jarraitu zuten.

Eredu administratibo jarraitzaileak

Espainiako Konstituzioak ez du erkidegoen zerrendarik finkatzen. Eratzeko bideak ezartzen ditu soilik. Behin bideak ezarrita, probintzien arteko elkarketaren bitartez eratu ziren hauek.

Konstituzioak abstrakzio maila altua ematen zuen. Erkidegoek hartu zuten administrazioa aurretik estatu mailan ezagutzen zena zen, kontinuista izan zela esaten da. Mimetismoz osatu zituzten beren administrazioak. Denek oso antzekoa.

Paktu autonomikoak 1981, 1992

Bi paktu autonomiko hauen bidez indar politiko nagusien adostasunak gauzatu ziren konstituzioaren markoan.

- 1981: Antolaketa antzekoa izan behar zutela finkatu zen, harmonizazioasmoarekin.
- 1992: Eskuduntzen transmisioa zabaltzea, lankidetzaren printzipioa eta Ceuta eta Melillaren eratzea finkatu ziren.

Transferentzien prozesu luzea

Erkidego bakoitzean batzorde mistoak sortu ziren (gobernu zentrala+erkidegoa) eta haietan finkatu ziren kontsentsuz (negoziaketa zailen bidez), eskuduntzaz- eskuduntza, nola transferitu baliabide materialak zein baliabide pertsonalak. Behin negoziaketa burututa, Transferentzien dekretuak egin ziren. Hauek oso konplexuak dira eta ondasunen jabea EA da ez estatua.

Erkidegoko Gobernu eta AAPPren ezaugarriak

Antolaketa homogenizazioa eta 1981eko Paktu autonomikoa

Antolaketaren homogenizazioa 152. Artikuluan jasotzen da, 1981an Erkidegoek honako organoak izango zituztela adostu zen:

- Asanblada legegilea: Sufragio zuzenez aukeratua eta hauteskunde sistema proportzionala.
- Gobernu kontseilua: Presidente autonomikoa, presidenteordeak eta kontseilariak
- Erregimen parlamentarioa.

Eskuduntzen transferentziak:

Eskuduntzen transferentziak Estatuko Administrazio orokorraren langilerian eragina izan zuen. Erkidego gehienek izan zuten funtsezko ezaugarri bat da (Euskal Erkidegoak izan ezik). Estatu zentralerako langileak erkidegoetako langile izatera pasa ziren. Haien, beren lan-kultura ekarri zuten erkidegoetara beraz izugarritzko eragina izan zuten. Erkidegoetako administrazioen sorrera arkaikoa izan zen, berrikuntzari tarte gutxi emanda.

EAEn ezberdina izan zen, langileria berria izendatu eta hau hautatzeko sistema berehala jarri zutelako martxan. Lan eskaintza publikoa handitu egin zen eta langile profil berriekin batera administrazioaren modernizazioa eman zen.

Bataz beste 10 departamendu inguru dituzte erkidegoetako administrazioek. Bestalde, goi organo eta behe organoen artean banatzen dira; lehenengoa konfidantzazko pertsonen osatzen dute (Idazkaritza eta Zuzendaritza orokorrak) bigarrena, funtzionarioen artean izendatutakoak (Zuzendaritzaordeak, Zerbitzuak, Atalak, Negoziatuak)

EAEn ez da bereizketa hau egiten, kargu politikoak eta kargu funtzionarioetan banatzen dira.

Administrazio funtzionala

Administrazio funtzionala asko garatu da. 2500 entitate inguru daude Espainian gaur egun. (Katalunian langileen %42a eta Andaluzian %50etik gorakoa).

Administrazio periferikoa

Administrazio periferikoari dagokionez, Erkidego gehienek dituzte delegazioak probintzietan. Andaluzia da adibide nabarmena eta bereziena, probintzien lurralde delegatuak dituztelako.

Bestelako Administrazioa

Bestelako Administrazioari dagokionez (kontsultiboa, kontrola...), garatzen joan da hala-nola: Herriaren defendatzaileak, Kontu auzitegiak, Kontseilu ekonomiko sozialak, Ikus entzunezko Kontseiluak... (hauek ez dira Konstituzioan jasotzen, baina erkidego guztietan garatu izan dira)

-Herriaren defendatzaileak (administrazioaren aldetik bakarrik)

-Kontu auzitegiak: Parlamentuaren menpe daude eta tarteka auditoriak egiten dituzte, urtero modu aleatorio batean.

-Kontseilu Ekonomiko Sozialak: Honakoak, erkidego guztiek daukate eta Kontsulta egiteko organoak dira. Bertan Agente sozial ezberdinak biltzen dira eta hartzen diren erabakiak lotesleak ez diren arren gobernurako erabilgarriak dira.


-Ikus entzunezko Kontseiluak: Komunikabide publikoen inguruko jarraipena, ikerketa, edota analisia egiten dute, kontrol eta kontsulta organoak dira.

Dena-den, 1990. Hamarkadaren amaieran berrikuntzak izan ziren: Langileriaren errendimendua neurtzeko bideak jartzea adibidez.

Eusko Jurlaritzaren Gobernu eta Administrazioa

1979ko Estatutua eta 1981ko Gobernu Legea

Estatutuaren bigarren kapituluaren (29-33. Art) gobernuaren oinarritzko ezaugarriak finkatzen dira. 1981ean Gobernu legea onartu zen: Gobernuaren egitura, eskuduntzak eta legebiltzararekin izango dituen harremanak finkatzen ditu (Autonomia Estatutuaren printzipio politikoak finkatzen zuen eredu parlamentarioa garatzen du). Gobernu lege honetan Gobernu Karguen arauketa ere ezartzen da, Lehendakariaren izendapena eta eginkizunak, Lehendakariordearena eta goi-karguena. Gobernu lege honetan Administrazio publikoaren ardatzak ere finkatu ziren, baita kargua mantentzeko konfiantza mozioa ere edota zentzura mozio konstruktiboa.



Exekutiboaren funtsezko osagaiak

Gobernu kontseilua: Erabakiak hartzeko organo gorena da eta astero biltzen da. (ministro kontseiluaren parekoa da) Organo kolegiatua da, kontseilari guztiekin osatua, beraz erabakiak guztienak dira.

Lehendakaritza: Koordinazioa eta zuzendaritza: Lehendakaritzak Sailburu ezberdinen arteko lankidetzaz bideratuko du jarduerak partekatuz eta koordinatzea ezinbestekoa da. Hortaz, zuzendaritza eta koordinazioa Lehendakaritzaren menpe daude eta izugarriko garrantzia daukate, aurrera eraman beharreko proiektu nagusi guztiak bertatik abiatzen baitira. Bestalde, gobernuari heltzen zaizkion eskabide guztiak bertatik bideratzen dira. Lehendakaritzak Sailburu ezberdinen arteko lankidetzaz bideratuko du jarduerak partekatuz eta koordinatzea ezinbestekoa da.

Kontrol ekonomiko bulegoa: Ekonomia eta ogasun sailaren menpe dago, baina sail guztiei eragiten die, transbertsala baita. Barne kontrola bideratzen du eta honen onspena duten proiektuek bakarrik egingo dute aurrera. Eusko Jaurlaritzak egiten duen aktibitate orok hemendik pasatu behar du.

Aholku batzorde juridikoa: Justizia sailaren menpe dagoen juristez osaturiko organo berezia da, nolabaiteko autonomia duen arren. Gobernuak onartu behar dituen erabaki guztiak legearekin bat datozen bermatu behar du, hortaz, egitasmoen zuzentasun juridikoa zaindu beharko du.

9. GAIA: Tokiko Gobernu eta Administrazioa

Toki administrazioen aniztasuna: Entitate motak

Toki administrazioek izaera politiko eta administratiboa dute. Hauek bi motatakoak izan daitezke, derrigorrezkoak (konstituzioak arautzen ditu) eta hautazkoak.

Derrigorrezkoak:

- 1) Udalak:
- 2) Probintziak:
- 3) Irlak: (consejos insulares, cabildos insulares)

Hautazkoak:

- 1) Eskualdea: Udalen elkartzea da, kudeaketa batzuk elkarbanatzeko asmoz sortzen da.
- 2) Metropoli-barrutiak: Hiriak eta ingurukoak elkartzen dira, zerbitzu prestaketa egiteko.
- 3) Mankomunitateak: Zerbitzuak partekatze sortzen dira
- 4) Entitate-inframuzipalak: Azpiegituren antolaketa bideratzeko baliatzen da. Hiri barruetan sortutakoak zein herri txikietan sortuak.

Udalak

Espanian udalen gehiegizko kopurua dago, oinarri historikoa duelarik: Frankoren garaitik udal bezala ulertu da kasko inguruan eraikitakoa ("naturala").

Gaur antolaketaren oinarritzko erakundeak dira, herritarren partaidetzarako bidea eta izugarritzko legitimitatea hartu dute (gainerako instituzioekiko mesfidantza zabaldua egon arren, udalarekiko ez hainbeste, munizipalismoa nahiko hedatuta dago).

Dena dela, arazo ekonomikoak izaten dituzte. Aldaketa ekonomikoen aurrean ahulezian daude, eskari ugari eta baliabide gutxiegi dituzte. Zuzendaritza politiko eta administratiboak ere eragina du arazo ekonomikoetan.

Elkarteak sortzen dira udalen artean (mankomunitateak, partzuergoak) elkarlana eta koordinazioa bultzatzeko (FEMP).

Gaztela Leonen efizientzia arazo handia dago, udal txiki ugari daudelarik arazo ekonomikoak bideratu ezin dituztenak. 20.000 biztanleko udalen eskala egokia izango litzateke, baina Espainiar Estatuan udalen %84a 5.000 biztanle baino gutxiagokoa da (G.L.en %97'5).

EAEn 251 udal daude (112 Bizkaian, 88 Gipuzkoan eta 51 Araban). Tamainari dagokionez, 20.000 biztanle baino gehiago dituzten herriak Arrasate, Basauri, Sestao eta Zarautz dira, biztanle baino gehiago dituztenak berriz, Barakaldo, Bilbo, Donostia, Gasteiz eta Getxo.

Euskadiko Toki Erakundeen Legea (2016)

- Administrazio maila desberdinak integratu.
- Finantziazioa bermatu.
- Legitimitate demokratikoa = gardentasuna, partaidetza..
- Toki autonomia babestu.
- Eskuduntzak argitu / zabaldu.
- Zerbitzu kudeaketa partekatua zabaltzen du.

Udalen eskuduntzak:

- Hirigintza: hirigintza-antolamendua. Ondare historikoaren babesa eta kudeaketa. Babes publikoko etxebizitzaren sustapena. Eraikuntza mantentzea eta birgaitzea.
- Hiri-ingurumena: parke eta lorategi publikoak, hiriko hondakin solidoen kudeaketa eta hiri-eremuetako kutsaduraren aurkako babesa.
- Edateko uraren etxeko hornidura eta hondakin-uren ebakuazioa eta tratamendua. – Bide-azpiegiturak eta beste ekipamendu batzuk.
- Gizarte-premia duten egoeren ebaluazioa eta informazioa eta gizarte-bazterkeria egoeran dauden pertsonen arreta.
- Tokiko polizia, babes zibila eta suteak itzaltzea.
- Trafikoa, aparkalekua eta mugikortasuna. garraio kolektiboa
- Informazio turistikoa
- Azokak, hornidurak, merkatuak, lonjak eta kale-merkataritza.
- Herri-osasungarritasunaren babesa
- Hilerriak eta hileta-jarduerak.
- Kirolaren eta kirol-instalazioen sustapena.
- Kulturaren eta kultura-ekipamenduen sustapena.
- Haur-hezkuntza, lehen hezkuntza edo hezkuntza bereziko zentro publikoen eraikinen kontserbazioa, mantenua eta zaintza.
- Herritarrek informazio- eta komunikazio-teknologiaren erabilera eraginkorra eta jasangarrian parte hartu dezatela sustatzea
- berdintasun eta genero indarkeriaren aurkako neurriak

Esan ohi da arazo publiko bat dagoela, udalak eskuduntza gehiegi hartzen dituela eta.

Eskaini beharreko zerbitzuak:

- Udalerrri guztietan: argiteria, hilerrria, hondakin-bilketa, kalebideen garbiketa, edateko uraren etxeko hornidura, estolderia, irispideak eta herri barruko bideenzoladura.
- +5.000 lehenagoz gain: parkeak, liburutegi publikoa eta hondakinentratamendua.
- +20.000 lehenagoz gain: babes zibila, gizarte-bazterkeria egoeran dauden pertsonen arreta, suteak itzaltzea, eta erabilera publikoko kirol-instalazioak.
- +50.000 lehenagoz gain: bidaiarientzako hiri-garraio kolektiboa eta hiri-ingurumena.

Udalen finantziarioa

Estatu eta Erkidegoen transferentziak:

- Baldintzatuak (zerbaiten arabera): goian dagoen erakundeak finkatzen ditu eta udalak autonomia gutxi du.
- Baldintzagabeak: diru kantitatea besterik gabe jasotzen da eta udalak autonomia osoa du.

Berezko baliabideak:

- Tasak: zerbitzu publiko batengatik ordaintzen dena da. Ez direnez nahikoa, instituzioek jartzen dute gainerakoa (hondakinen zerbitzua, uraren hornidura, unibertsitate publikoa...).
- Udal mailako zergak. Udalerrri bakoitzeko dinamismo politikoa ezberdina da eta hau kontuan hartzen da transferentziak emateko momentuan.
 - Ibilgailuak
 - Ondasun higiezinak
 - Eraikuntzak / lanak.

Euskadi mailan finantziario nagusia Foru Aldundiak izango dira. Bakoitzak bere udal fondoa bideratzen du. Batzar Nagusi bakoitzak erabakitzen ditu banatzeko irizpideak, barne produktu gordinaren, langabezi tasaren... arabera.

Udal antolaketa: organo eta antolaketa forma ezberdinak daude

- Gobernu kolegiatua: erabakiak taldean hartzen dira alkateen, alkateordeen eta zinegotzi ordezkarien artean.
- Gobernu batzordea: 5.000 biztanle baino gehiago dituzten herrietan sortzen dira, udal gobernuko ordezkariak osatuta.
- Udal batzarra (Osoko bilkura): Zinegotzi guztiak bertan elkartzen dira.
- Informazio batzordeak: 5.000 biztanle baino gehiago dituzten herrietan sortzen dira eta gai ezberdinetaz aritzeko sortzen diren udal organoak dira
- Kontuen batzorde bereziak.

Euskadiko Udalen Elkartea (EUDEL), 1982an eratu zen, udalen arteko sare lana bete asmoz. Bere helburuak udal autonomia bultzatzea, erakunde politiko-administratiboko kideen interes orokorrak defendatu eta ordezkatzeta eta kohesioa (udalen ordezkari-tza hainbat erakunderako organoetan) dira.

Tokiko politika publikoen Euskal Kontseilua: 2016an sortu zen, administrazio maila ezberdinetako harremana bideratzeko. 18 kidek osatzen dute: toki mailako 6 ordezkari, Foru Aldundi bakoitzeko 2k eta Eusko Jaurlaritzako 6k.

Euskadiko Tokiko Gobernuaren Batzordea: 2016an sortu zen, bertan, udal-erri bakoitzeko ordezkariak finkatzen dira. 12 kidek osatzen dute: aurreko kontseiluko toki mailako 6 ordezkariak eta alkate eta zinegotzien artean hautatuko 6k.

Probintziak

Abiapuntua eta gaurko esanahia:

Gaurko probintzien mapa 1833koa da, Javier de Burgosen proposamenez. XIX. mendetik arrazionalizazio saiakerak egin ziren lurralde antolamenduari dagokionez. Lurralde antolamendua homogenizatzeko saiakera egin zen antzinako konterri, dukerri eta abarrek aldatzeko.

Gaurko konstituzioak frankismotik datorren antolamendua bere egiten du. Udalak eta probintziak berberak dira eta oinarri horretatik arautzen du erkidegoak garatzeko aukera.

Probintziak hauteskunde barruti ere badira Kongresu eta Senaturako.

Organo nagusiak diputazio probintzialak izango dira, probintzia bakarreko erkidegoetan salbu, horietan ez baitago. Salbuespenak honakoak dira:

- Probintzia bakarreko Autonomia Erkidegoak (Asturias, Kantabria, Errioxa, Nafarroa, Madrilgo Erkidegoa, Murtzia)
- Irlak (consejos insulares).
- Euskal Autonomi Erkidegoa: Foru Aldundiak.

Hautaketa sistema

Hautaketa sistema zeharkakoa da (ez zuzena). Udal hauteskundeak egiten direnean, alderdi bakoitzaren probintziako emaitzen arabera *D'hont* legearekin hautatzen dira ordezkariak. Diputatuak, zinegotzien artean aukeratzen dira behin hauteskundeak pasa ostean, alderdiaren erabakiz. Ondoren diputatuen artean hautatzen da presidentea. Esan daiteke udal mailako ordezkari politikoak direla.

Biztanle-kopurua	Diputatuak
500.000 arte	25
500.001-1.000.000	27
1.000.001-3.500.000	31
3.500.001tik aurrera	51

Antolaketa: Probintzien gobernuak

- Presidente.
- Presidenteordea.
- Gobernu batzordea.
- Osoko Bilkura diputatu guztiak.

Eskumenak

- Koordinazioa: Batez ere udal mailako koordinazioa egiten dute; udalentsat interesgarria izan daitekeen informazio.
- Kooperazioa eta asistentzia zerbitzuen burutzea.
- Udal goi mailako zerbitzuak eskaintzea.
- Udal txikien kudeaketan laguntzea.
- Probintziak dituen interesen babestea

Nolabait esatearren, udalen mankomunitateen antzerako funtzioa betetzen dute, udalak elkarren artean lagundu ahal izateko.

Canarias: Erkidego autonomo berezia.

-2 probintzia:

- Las Palmas de Gran Canaria
- Santa Cruz de Tenerife.

-2 hiriburu ofizial:

- Gobernu autonomikoaren egoitza txandaka.
- Parlamentua Santa Cruzen.
- Gobernu Delegazioa Las Palmasen.

-*Cablos insulares* irla bakoitzean.

EAE: Lurralde historikoak

- Sistema politikoaren oinarriak dira, ez probintzia soilak.
- Kontzertu ekonomikoaren osagai nagusiak dira.
- Zerga nagusiak biltzeko eskuduntza beraien gain dago.
- Baliabideen banaketa legeak arautzen du.
- Tradizioan oinarritua: eskubide historikoak.

Erakunde politikoak:

-Batzar Nagusiak: ordezkaritza organoa.

- Hauteskundeak.
- 51 batzarkide
- Eginkizunak: Arauen onarpena, Foru Aldundiaren kontrola eta ekimen legegilea Legebiltzarrean.

-Exekutiboa:

- Diputatu Nagusia.
- Gobernua: organo kolegiatua, Foru Diputatuak.
- 10 sail gehienez.

Lurralde historikoen eskuduntzak:

Gernikako Autonomia Estatutuak (1979) eta Lurralde Historikoen Legeak (1983) araututa.

7. artikuluan:

- Eskuduntza eskusiboak.

- Antolaketa autonomia (erakunde, aurrekontu).
- Zergen bilaketa (kontzertu ekonomikoa).
- Azpiegiturak, errepideak...
- Mendiak.
- Polizia Forala.
- Artxibo, liburutegi, museoa. Foralismoaren nukleoa: ezin dira ukitu!

-Garapen eta exekuzioa.

- Landare eta animalia-osasuna.
- Uraren kontrola.
- Patrimonio historikoa.
- Kirola.

-Exekuzioa.

- Gizarte asistentzia.
- Emakumeak (berdintasuna, "condición femenina").
- Gazte eta haur politika.
- Zaharren politika.
- Aisialdia: Foru Arauak.

Arabako Foru Aldundia	Bizkaiko Foru Aldundia	Gipuzkoako Foru Aldundia
1. Diputatu Nagusia	1. Ahalzun Nagusia	1. Diputatu Nagusiaren alorra
2. Gizarte politikak	2. Gizarte Ekintza	2. Gizarte Politikak
3. Ekonomiaren garapena, berrikuntzaren eta demografia erronka	3. Ekonomia Sustapena	3. Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Ingurunea
4. Lurralde oreka	4. Azpiegiturak eta Lurralde Garapena	4. Ogasuna eta Finantzak
5. Ogasun, Finantza eta Aurrekontuak	5. Ogasuna eta Finantzak	5. Kultura, Lankidetzeta, Gazteria eta Kirola
6. Enplegu, Merkataritza eta Turismo sustapena eta Foru Admizioa	6. Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna	6. Gobernantza
7. Kultura eta Kirola	7. Euskara, Kultura eta Kirola	7. Bide Azpiegiturak
8. Nekazaritza	8. Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	8. Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa
9. Bide Azpiegiturak eta Mugikortasuna	9. Iraunkortasuna eta Inguru Naturala	9. Ingurumena eta Obra Hidraulikoak
10. Ingurumena eta Hirigintza	10. Garraioak eta Mugikortasun jasagarria	10. Proiektu estrategikoak

Ekarpenak (Ekarpen Legean ezarrita formula).

- Portzentaia bertikalak: Eusko Jaurlaritzari diru sarreren zenbat dagokio (%70).
- Portzentaia horizontalak: Jaurlaritzari emateko (Araba %16, Gipuzkoa %33, Bizkaia %51).